

EBAZPENA, 2026KO MAIATZAREN 15EKOA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, ERASMUS+ PRAKTIKAK PROGRAMA ARAUTU ETA DEITZEN DUEN DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEN DITUENA. PROGRAMA HORI EHU-KO GRADU, MASTER OFIZIAL ETA DOKTOREGOKO IKASLEEK ATZERRIKO ENPRESETAN PRAKTIKAK EGITEKO MUGIKORTASUN-BEKAK DIRA.

Euskal Herriko Unibertsitatearen helburuetako bat, besteak beste, profesionalak prestatzea gizarte-ingurunearen eskakizunetara egokituta. Horren barruan sartzen da lanbide-errealitatearekin harremanetan dagoen prestakuntza praktikoa. Beraz, oso interesgarria da Erasmus+ programaren babesean dauden prestakuntza-ekimenak gizartearen egitura instituzional edo produktiboan gauzatu ahal izatea.

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza, prestakuntza mota horren garrantziaz eta ikasleen enplegarritasuna sustatzeko beharraz jabetuta, unibertsitateko prestakuntza-etapan prestakuntza eta produkzio-sarea integratzea helburu duten jarduerak indartzearekin konprometituta dago.

Kontuan hartuta 2025-1-ES01-KA131-HED-000337952 eta 2026-1-ES01-KA131-HED-000448068 proiektuei lotutako dirulaguntzen kontratuaren Europako funtsetatik datorren kreditua dagoela, eta ditudan eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa: EHUko gradu, master ofizial eta doktoregoko ikasleei zuzendutako Erasmus+ programan nazioarteko praktikak egiteko mugikortasun-deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea.

1. MUGIKORTASUNAREN XEDEA	3
1.1 Xedea	3
1.2 Beken ezaugarriak.....	3
2.– DEITUTAKO BEKAK, EDUKIA, EPEAK ETA IRAUPENA	3
2.1. Beken kopurua	3
2.2. Edukia.....	3
2.3. Epeak.....	4
2.3. Mugikortasunaren iraupena eta finantzatutako aldia	4
3.– HAUTAGAIK ETA ENPRESA/ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK	5
3.1. Hautagaiak bete beharreko baldintzak	5
3.2. Harrerako enpresen/erakundeen betekizunak	6
4.– FINANTZIAKETA	7
4.1 Bidaia gastuetarako eta mantenu gastuetarako laguntzak.....	7
4.2 "Aukera gutxiagoko" kolektiboentzako laguntza.....	8
4.3 Bateragarritasunak	8
5.– ESKAERA EGITEKO PROZEDURA	9
5.1 Eskaerak egiteko epea	9
5.2 Bidali beharreko dokumentazioa	9
5.3 Dokumentazioa bidaltzea	10
5.4 Eskaera zuzentzea eta hobetzea	11
6. HAUTAKETA PROZEDURA.....	11
7.– ESLEIPEN-EBAZPENA.....	11
8.– ESLEIPENDUNER PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK.....	12
8.1 Egonaldiaren aurretik.....	12
8.2 Behin Mugikortasuna hasita	13
8.3 Egonaldia egin ondoren	13
9.– ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK	14
10. – PERTSONA ESLEIPENDUNA IZATEARI UZTEA	14
10.1 Pertsona esleipenduna izateari uztea.....	14
10.2 Uko-egiteak.....	15
11.– DIRU LAGUNTZAREN ORDAINKETA	15
12.- MUGIKORTASUNAREN AINTZATESPENA.....	15
13.– ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK	16
13.1 Araubide juridikoa	16
13.2 Errekurtsiak	16
ERANKSINAK	17

1. MUGIKORTASUNAREN XEDEA

1.1 Xedea

Ebazpen honen xedea da Erasmus+ Praktikak programaren 2026/2027 edizioaren oinarriak arautzea eta deialdia argitaratzea. Programa horren bidez, EHUko gradu, master ofizial eta doktoregoko ikasleen mugikortasuna sustatu nahi da, Europar Batasuneko Erasmus+ programan parte hartzen duten herrialdeetan kokatutako enpresetan eta erakundeetan prestakuntza-praktikak egin ditzaten, haien gaitasun profesionalak hobetzeko, haien enplegarritasuna errazteko eta, azken batean, prestakuntza osatzeko, bestelako kultura-ingurune batean enpresa-praktikak eginez.

Deialdia gauzatzeko, beharrezkoa izango da kreditu nahikoa egotea.

1.2 Beken ezaugarriak

Programa honetako mugikortasun-bekak Europar Batasunaren funtsen bidez finantzatutako dirulaguntzak dira, eta ez dira itzuli behar. Publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioen arabera esleituko dira.

Eskatzaileen artean esleituko dira, ondoz ondoko lehia-deialdi irekiko prozeduraren bidez; hartara, aurkeztutako hurrenkeran aztertu eta izapidetuko dira espedienteak, eta deialdi honen epeen arabera erabakiko dira.

1.3 Estatutu- edo kontratu-loturarik eza

Erasmus+ Praktikak mugikortasun-beka bat eskuratzeak ez du kontratu- edo estatutu-loturarik sortuko esleipendunaren eta Erasmus+ Praktikak programaren antolatzaileen artean, ezta ikaslearen eta praktikak egingo diren erakundearen edo enpresaren artean ere.

1.4 Kontrola eta jarraipena

Esleipendunek praktikaldian eginiko jardueren kontrolaz eta jarraipenaz Erasmus+ Praktikak programaren antolatzaileak arduratuko dira. Antolatzaileek egoki irizten dieten egiaztapenak egin ahal izango dituzte, praktikaldiaren garapenaren inguruan.

2.– DEITUTAKO BEKAK, EDUKIA, EPEAK ETA IRAUPENA

2.1. Beken kopurua

Deialdi hau eskuragarri dauden funtsak agortu arte egongo da zabalik.

2.2. Edukia

Ikasleak matrikulatuta dauden ikasketekin lotura zuzena izango dute praktikek. Praktikak egingo diren atzerriko enpresak edo erakundeak erakusle bat izendatuko du kasu bakoitzean, praktikaren prestakuntza-akordioan jasota dauden helburuak betetzen direla bermatzeko. Bestalde, ikasleak harremanetan egon beharko du, etengabe, EHUko bere ikastegiak izendatuko duen tutorearekin.

2.3. Epeak

- Izena emateko epea:

Mugikortasunak egiteko hainbat ebazpen argitaratuko dira 2026/2027 ikasturtean betiere proiektuaren aurrekontu-erabilgarritasunaren baldintzapean. Ebazpen horietako bakoitzak eskaera egiteko epe bat eta mugikortasuna egiteko data bat ditu. Behin-behineko ebazpen bakoitza argitaratu eta 10 egun balioduneko epean argitaratuko da behin betiko ebazpen bakoitza, eta hortik aurrera egin ahal izango da mugikortasuna.

Mugikortasunak jarraian deskribatutako daten arabera planifikatu beharko dira:

<u>Behin-behineko ebazpenak</u>	<u>Eskaera bidaltzeko epea</u>	<u>Mugikortasunaren hasiera dataren epea</u>
1.Behin-behineko Ebazpena	2026/05/18- 2026/06/07	2026/09/01
2.Behin-behineko Ebazpena	2026/06/08- 2026/09/06	2026/10/12
3.Behin-behineko Ebazpena	2026/09/07- 2026/11/09	2027/01/04
4.Behin-behineko Ebazpena	2026/11/10-2027/02/17	2027/04/05

Taulan aurreikusitako azken ebazpenaren ondoren deialdi honetarako funtsak agortu ez badira, Ezohiko Ebazpen bat argitaratuko daiteke eskatutako mugikortasun berrietarako, betiere deialdi honetan adierazitako mugikortasunak eskatzeko eta baliatzeko epemugak errespetatuz (2.4 puntua).

- Praktikak egiteko epea: 2026/09/01 etik 2027/08/30era bitartean egin ahal izango dira.

2.3. Mugikortasunaren iraupena eta finantzatutako aldia

Bi egonaldi mota daude: laburra eta luzea.

1. Egonaldi laburra:

- Gutxienez 5 eguneko eta gehienez 30 eguneko egonaldiak eskatu ahal izango dira
- 3. zikloko mugikortasunetarako bakarrik (doktoregoa).
- Gutxienez 5 egunez eta gehienez 30 egunez finantzatuko da.

2. Egonaldi luzea:

- Gutxienez 2 hilabetekoa izango da, eta iraupena harrerako erakunde edo enpresa bakoitzaren eskaintza zehatzak zehaztuko du.
- Unibertsitateko 3 zikloetako ikasleak eskatu ahal izango dituzte (gradua, masterra eta doktoregoa).
- Gutxienez 2 hilabete eta gehienez 6 hilabete finantzatuko dira

Praktikak egingo diren enpresa edo erakundea ados badago, ikaslearen atzerriko egonaldia luzatzeko aukera egongo da, baldin eta luzapena praktikaldiari jarraiki egiten bada (hots, egonaldia eteten ez bada) eta 2027ko abuztuaren 30 baino lehen amaitzen bada.

Egonaldia luzatzeak ez du inolara ere finantzazioa handituko.

3.– HAUTAGAIEK ETA ENPRESA/ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

3.1. Hautagaiek bete beharreko baldintzak

Hautagaiek, eskaera egiterakoan, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Baldintza orokorreki dagokienez, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarrak izatea, edo EBN sartzeko hautagai den herrialde batekoak (Kroazia, Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia, Islandia eta Turkia), edota Europako Esparru Ekonomikoko herrialde batekoak (Liechtenstein eta Norvegia). Horrez gainera, Espainiak ofizialki errefuxiatutzat, apatridatzat edo egoiliar iraunkortzat dituen pertsonak ere hartu ahal izango dute parte deialdi honetan. Azkenik, programan parte hartzen duten herrialdeetakoak ez diren pertsonak ere hartu ahal izango dute parte deialdian, baldin eta hirugarren herrialde bateko herritarrak badira eta praktikaldiak iraun bitartean Espainian bizitzeko bizileku-baimena badute.
- Mugikortasuna hasi aurretik **2026/2027** ikasturtean EHU-n matrikulatuta egotea, titulu ofizial bat lortzeko ikasketetan (gradutik doktoretzara); eta, graduiko ikasketetan, enpresetako praktikak egiteko behar diren kredituak (120) gaindituta edukitzea, EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiak ezartzen duenaren arabera.
- Esleipendunak ikasle egoeran egon beharko du praktikak egiten dituen bitartean.
- Praktikak egingo diren enpresaren lan-hizkuntza behar bezala jakitea. Enpresak hizkuntzaren ezagutza-maila egiaztatzeko eskatzen badu (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, HEEEB), eskatutako hizkuntza-ziurtagiria aurkeztu beharko du ikasleak; nolahi ere, enpresa izango da ikaslearen lan-hizkuntzaren ezagutza-maila egiaztatzeko arduraduna.
- Diru laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik jaso ez izana, Emakume eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu arrazoiengatik diskriminazioagatik jasotakoak barne.

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira:

- Praktikak egiteko unean EHU-n beste programa batzuen bitartez ikasketak edo mugikortasun-egonaldiak egiten ari diren ikasleak (Erasmus+ ikasketetarako mugikortasun-programa, SICUE, Amerika Latina eta Beste Norakoak programetako trukeko ikasleak eta abar).
- Aurreko deialdiren batean praktiketarako Erasmus+ laguntza baten titularrak izanik, jaso duten bekari deialdi honen irekiera-dataren aurretik berariaz uko egin ez dioten ikasleak, eta EHUk kudeatutako edozein deialditan laguntza ukatu zaienak.
- Erasmus+ programaren barruan 12 hilabeteko egonaldia egin dutenak, modalitate guztietan, ikasketa-ziklo bererako: gradua (1. zikloa), masterra (2. zikloa) edo doktoregoa (3. zikloa). Baldintza hori ez zaie aplikatuko ziklo bakarreko graduei, hala nola Farmazia, Medikuntza eta Odontologia graduei. Horretarako, muga 24 hilabetekoa izango da.

- Praktika egiteko unean, enpresa, erakunde edo entitateren batekin lanaldi osoko lan-harremana, zerbitzuak ematekoa edo antzekoa dutenak. Doktoratu aurreko beka baten onuradunen kasuan, komeni da eskatzaileak ziurtatzea laguntza hori bateragarria dela beste beka batzuekin (kasu honetan, Erasmus bekarekin). Horretarako, onuradun den beken oinarriak kontsultatu beharko ditu
- Aurreko deialdiren batean Erasmus+ Praktikak programako bekaren bat lortu ondoren uko egin diotenak behar bezala justifikatu gabe, eta, ondorioz, beste hautagai batzuei mugikortasunean parte hartzeko aukera kendu diotenak.

3.2. Harrerako enpresen/erakundeen betekizunak

Prestakuntza praktikoko aldietarako ikasleen mugikortasunaren kasuan, harrera-erakundea Erasmus+eko herrialde batean egon behar du eta honelakoa izan daiteke:

- Lan-merkatuan edo hezkuntzaren, prestakuntzaren, gazteriaren, ikerketaren eta berrikuntzaren arloetan diharduen edozein erakunde publiko edo pribatu. Adibidez, honelakoa izan daiteke:
 - Enpresa publiko edo pribatu bat, txikia, ertaina edo handia (enpresa sozialak barne);
 - Tokiko, eskualdeko edo nazioko erakunde publiko bat;
 - EBko estatu kideko enbaxada edo bulego kontsularrak edo bidalketa-programari lotutako hirugarren herrialdekoak;
 - Gizarte-solaskidea edo lan-bizitzaren beste ordezkari bat, merkataritza-ganberak, artisauek edo elkarte profesionalak eta sindikatuak barne;
 - Ikerketa-institutu bat;
 - Fundazio bat;
 - Ikastetxe bat, institutu bat edo ikastetxe bat (edozein mailatakoa, lehen hezkuntzaren aurreko hezkuntzatik bigarren hezkuntzaren bigarren etapara, lanbide-hezkuntza eta helduen hezkuntza barne)
- GKE bat, elkarte bat edo irabazi-asmorik gabeko erakunde bat;
- Orientazio eta aholkularitza profesionala eta informazio-zerbitzuak ematen dituen erakundea;
- Goi-mailako hezkuntzako erakunde bat, EBko estatu kide batean kokatua edo programari lotutako hirugarren herrialde batean kokatua (ECHE bat eman bazaio)
- Programari lotuta ez dagoen hirugarren herrialde bateko goi-mailako hezkuntzako erakunde bat, agintari eskudunek halakotzat onartua eta EBko estatu kide bateko (edo programari lotutako hirugarren herrialde bateko) bazkideekin erakunde arteko akordioak sinatu izana mugikortasun-jarduera gauzatu aurretik.

Honako erakunde mota hauek ez dira onargarriak praktiketako ikasleen mugikortasunerako harrera-erakunde gisa:

- EBko erakundeak eta EBko beste organo batzuk, agentzia espezializatuak barne (zerrenda osoa webgune honetan dago eskuragarri http://europa.eu/european-union/about-eu/institutions-bodies_es)
- EBko programak kudeatzen dituzten erakundeak, hala nola Erasmus+ agentzia nazionalak (interes-gatazkak edo finantziario bikoitzak saihesteko).

4.- AURREIKUSITAKO FINANTZAKETA

4.1 Bidaia gastuetarako eta mantenu gastuetarako laguntzak

Deialdi honetako dirulaguntzak SEPIEk adierazitako finantzaketa arauak kontuan harturik kalkulatu dira. Deialdiaren baldintzen eta hautaketa-ebazpenetan argitaratutakoen artean kontraesanak badaude, deialdikoak gailenduko dira. Egonaldia egingo duten ikasleek Europako dirulaguntza bat jasoko dute bidaia gastuetarako eta egonaldiko mantenu gastuetarako. Laguntza bi kontzeptutan banatzen da:

- 1) **Bidaia gastuetarako laguntza** diru kopuru jakin bat da, eta lantokiaren eta dagokion jarduera egingo den lekuaren arteko distantziaren arabera kalkulatu da, EACEAk horretarako sortutako tresna informatikoaren bidez: <https://erasmus-plus.ec.europa.eu/resources-and-tools/distance-calculator> eta bidaia ekologikotzat edo ez-ekologikotzat jotzea.

Bidaiaren distantzia	Kopurua (parte hartzaileko)	Bidaia ekologikoa*
10 y 99 km artean	28€	56€
100 y 499 km artean	211€	285€
500 y 1999 km artean	309€	417€
2000 y 2999 km artean	395€	535€
3000 y 3999 km artean	580€	785€
4000 y 7999 km artean	1188€	-

- 2) **Mantenu gastuetarako laguntza** EBk ematen duen laguntza indibiduala da, helmuga herrialdearen eta egonaldiaren iraupenaren arabera.

I. Egonaldi laburrak: 5-30 egun

Iraupena	Eguneroko zenbatekoa €	"Aukera Gutxiagoko" kolektiboentzako laguntza
14. egunera arte	79€	+100€ mugikortasun osorako
14.egunetik 30. egunera	56€	+150€ mugikortasun osorako*

*aurrekoarekin metatu ezin dena

II. Egonaldi luzea: 2-6 hilabete

Herrialdea	Taldea	Zenbatekoa hileko
Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Islandia, Italia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia, Herbehereak, Suedia.	1. Taldea	500€
Txekia, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Grezia, Letonia, Malta, Portugal.	2. Taldea	450€
Bulgaria, Kroazia, Hungaria, Lituania, Ipar Mazedonia, Polonia, Errumania, Serbia, Turkia.	3. Taldea	400€

Gainera, Erasmus+ programak diruz lagundu ahal izango ditu jarduera hasi aurreko joaneko bidaia egun bat eta jarduera amaitu ondorengo itzulerako bidaia egun bat, betiere, frogagiriak aurkeztuta. Bidaia-datak (joan-etorria) eta jarduera-datak (hasiera eta/edo amaiera) bat badatoz, aukera hori ez da kontuan hartuko. Bidaiak bidaia ekologikorako laguntzaren baldintzak betetzen baditu, Erasmus+ programak jardueren aurretik eta/edo ondoren 6 egun arte (guztira) finantzatzeko aukera ematen du.

4.2 "Aukera gutxiagoko" kolektiboentzako laguntza

Gizarteratzeko eta aniztasunerako estrategia berriaren barruan, SEPIEk aukera ematen die unibertsitateei 250 € hileko laguntza gehigarria emateko iraupen luzeko Erasmus+ mugikortasuna egiten duten "aukera gutxiagoko" kolektiboetako ikasleentzat. Deialdi honen esparruan, honako ikasle-kolektibo hauek hartzen dira halakotzat:

- a) Estatuko Administrazio Orokorraren izaera orokorreko ikasketa-beka baten onuradun, izatea, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren beka baten onuradun izatea, edo unibertsitate mailako ikasleak eskolatzeko beka baten onuradun izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak emana.
- b) Errefuxiatua izatea edo babes subsidiariorako eskubidea izatea, edo Espainian nazioarteko babesarako eskaera aurkeztu izana.
- c) Legez aitortua eta kalifikatua izatea %33ko edo gehiagoko desgaitasuna.
- d) Familia ugaria kategoría berezian
- e) Familia ugaria kategoría orokorrean
- f) Terrorismoaren biktimak eta senideak
- g) Genero-indarkeriaren biktimak
- h) Autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak
- i) Hiperaktibitatearekiko arreta-gabeziagatiko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak (AGHA/AGH)
- j) Ikasteko zailtasunak dituzten diagnostiko ziurtatuak
- k) Nahasmendu psikikoak dituzten diagnostiko ziurtatuak

Baldin eta aurrekontu nahikoa badago, talde horietako batean sartzen diren ikasleek egonaldi osoan jasoko dituzte dirulaguntzak, bat etorrita izenpetu beharko dituzten finantza kontratuetan zehaztuko diren arauekin. Dirulaguntza jaso ahal izateko, egoera horietako batean dagoen ikasleak egoera hori erregistratu beharko du —matrikula egiterakoan egin ez badu— kasuan kasuko zerbitzuan:

- A) ataletik G) atalera arteko egoeraren batean dauden graduiko ikasleak: eskola edo fakultateko idazkaritzan.
- A) ataletik G) atalera arteko egoeraren batean dauden masterreko ikasleak: eskola edo fakultateko idazkaritzan edo masterreko idazkaritza espezifikoa.
- H) eta K) ataletako egoeran dauden ikasle guztiak: Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuan (discap@ehu.eus).

Nazioarteko Harremanen Bulegoak egiaztatuko du, gorago aipatu diren zerbitzuetako arduradunekin batera, Erasmus+ mugikortasuna egiten duen ikasle bakoitzaren egoera, laguntza gehigarria dagokion ala ez ikusteko.

4.3 Bateragarritasunak

Mugikortasun-egoeran dagoela, jatorriko erakundean ikasteko normalki lortu ahal izango zituen beka edo maileguak erabiltzen jarraitu ahal izango du ikasleak. Erasmus+ mugikortasun-laguntzak bateragarriak dira hauekin:

- Beken sistema nazional edo eskualdekoekin, barne hartuta atzerrian eginiko ikasketen gastu gehigarriengatik konpentsazio bat ematen dutenak.
- Helburuko enpresa edo erakundearen edozein motatako ordainsariekin.
- Helburuko herrialdeko lanaldi partzialeko lanpostu batekin, baldin eta prestakuntza-akordioan aurreikusita dauden jarduerak egiten badira.

5.– ESKAERA EGITEKO PROZEDURA

Eskatzaile bakoitzak programarako hautagaitza aurkeztu beharko du; horretarako, 3.2 puntuko baldintzak betetzen dituen harrera-enpresa bat bilatu beharko du, eta sinatu beharko den behin-behineko lan-plan bat adostu. Gainera, 5.2 puntuan adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Dokumentazioa jaso eta berrikusi ondoren, ebazpen honen 6. puntuan adierazitako hautagaitzak hautatzeko prozedura hasiko da.

5.1 Eskaerak egiteko epea

2026ko maiatzaren 18tik 2027ko otsailaren 17ra arte; edo egun hori baino lehen, horretarako bideratutako aurrekontua agortzen bada. Agortuz gero, Interneteko helbide honetan argitaratuko da: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-praktikak>

Dagoeneko aurkeztu diren eta izapidetzen ari diren eskabideak, esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortu delako erantzun ezin direnak, ukatu egingo dira.

5.2 Bidali beharreko dokumentazioa

Programan parte hartu nahi duten eta 4. oinarrian planteatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak izena eman beharko dute eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztu beharko dute online **eskaera-inprimakia** betez (bide telematikoa). Inprimaki hori webgune honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-praktikak>

Online inprimakiaren bidez, eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- 1) **Eskabide-orria** (ikusi eranskinak), PDF formatuan, behar bezala beteta eta eskatzailearen sinadurarekin.
- 2) NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia.
- 3) **Learning Agreement**, honako pertsona hauek sinatua: 1) parte-hartzailearen Ikastegiko Nazioarteko Harremanen koordinatzailea, 2) xede-erakundea eta 3) parte-hartzailea.
 - Ezinbestekoa da "Traineeship in digital skills" eta "Level of language competence" atalak osatzea
- 4) **Hizkuntza-ziurtagiria**, enpresak derrigorrezko baldintza gisa ezartzen badu maila jakin bat egiaztatzea.
 - Oro har, enpresako lan-hizkuntza jakitea ezinbestekoa da nazioarteko mugigarritasunaz gozatzeko.
 - Enpresa bakoitzean eskatutako mailari eta haren balizko egiaztapenari buruzko informazioak Ikaskuntza Akordioan (Learning Agreement) agertu behar du.
 - Enpresak hizkuntzaren ezagutza-maila jakin bat frogatzea eskatzen badu, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB) edo parekoa erabiliz egingo du, enpresak hizkuntza-ziurtagiri zehatz bat (TOEFL, IELTS...) eskatu ezean. Kasu horretan, ez da inolako korrespondentziarik aplikatuko, eta ikasleak dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du, organismo eskudunak jaulkitakoa.
- 5) Ikasketak egiten diren zentroko **nazioarteko mugikortasuneko arduradunaren baimena**, Erasmus+ Praktikak deialdi honen arabera nazioarteko praktikak egiteko.
- 6) Erasmus+ Studies programa egiten ari bada: **Erasmus+ Studies programako egonaldiaren amaierako ziurtagiria**

5.3 Dokumentazioa bidaltzea

Dokumentazioa bidaltzeko, urrats hauek bete beharko dira:

1. Online inprimakia betetzea eta 5.2 puntuan adierazitako dokumentazioa bertan eranstea.
2. Eskatzaileak **eskaeraren frogagiria** jasoko du jakinarazpenak jasotzeko eskaeran agertzen den helbide elektronikoa.
3. **Eskabidearen frogagiria jaso ondoren**, inprimatu eta Erregistroaren bidez aurkeztu beharko du:

- 3.1 OHARRA: Izen-ematea web formularioaren bidez egitea lortzen ez bada eta, beraz, eskabidearen frogagiria jasotzen ez bada, ikasleak od.international@ehu.eus helbidera jakinarazi beharko du eta deialdi honetako 5.2 puntuan jasotako dokumentazio guztia Erregistro bidez bidali beharko du.

Egun, indarrean dago EHU bitarteko elektronikoen funtzionatzeko eta jarduteko arautegia, 2024ko irailaren 11koa, eta bertan xedatutakoaren arabera, zenbait pertsona behartuta daude EHUrekin bitarteko elektronikoen bidez izatera harremanak. 5.f) artikuluan zehaztuta dago nola aurkeztu behar duten dokumentazioa hautapen prozesuetan parte hartu nahi dutenek, eta, hain zuzen ere, hau dio:

f) Dagozkien deialdietan ezartzen denaren arabera, Unibertsitateko lanpostuetarako hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek bitarteko elektronikoen bidez egin behar dituzte prozesu horiekin zerikusia duten tramite guztiak.

- Eskaria epe barruan aurkeztu beharko duzu **EHUko egoitza elektronikoen** bidez (<https://egoitza.ehu.eus>)
- Egoitza elektronikoko prozeduren katalogoan ez badago jasota egin nahi duzun prozedura, eskaria erregistro elektronikoro korra bidez egin beharko duzu, **"Eskatzen du"** atalean, **ERASMUS+ PRAKTIKAK Nazioarteko Harremanen Bulegoa**. Horretarako, egoitza elektronikoa adierazita dauden identifikazio elektronikorako edozein sistema erabili ahal izango duzu, esaterako: BakQ, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Izenperen hodeiko ziurtagiri profesionala erabili nahi baduzu, "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez, lehenago hodeiko txartel birtual profesionala instalatuta izan beharko duzu eta saioa hasi.

Bestalde, behar bezala egiaztatutako egoeretan, eskaria eta agiriak erregistro gaitan laguntzeko EHUko bulegoetan aurkeztu ahal izango dituzu. Euskarri ez-elektronikoa aurkeztutako agiriak digitalizatu egingo dira, administrazio espediente elektronikoa sartzeko. Aurkezten diren jatorrizko dokumentuak itzuliko egingo dizkizute, baldin eta arauen batek ez badu agintzen dokumentu horiek unibertsitateak zaindu beharrekoak direla edo ez bada nahitaezkoa objektuak edo dokumentuak digitalizatzeko aukerarik ematen ez duen berariazko euskarriren batean aurkeztu dela.

Eskaera erregistro presentzialki aurkeztuz gero, helbide honetara joko da:

ERASMUS PRAKTIKAK deialdia
Oficina de Relaciones Internacionales del Campus de Gipuzkoa
Centro Ignacio María Barriola
Plaza Elhuyar 1
20018 Donostia-San Sebastián

Bide telematikoz bidalitako eskabideak, aurreko paragrafoetan adierazitako prozeduraren bidez erregistratu ez badira, EZ AURKEZTUTZAT joko dira, eta programatik kanpo geratuko dira.

Baztertzeko arrazoiak izango dira: a) eskabideak deialdi honetan horretarako ezarritako epetik kanpo aurkeztea; eta b) ebazpen honetan adierazitako baldintzak ez betetzea.

Programari buruzko informazioa EHU n emango da, telefonoz, od.international@ehu.eus emailaren bidez eta Interneteko helbide honetan: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-praktikak>

5.4 Eskaera zuzentzea eta hobetzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikagarria den legedi espezifikoan ezarritako beste batzuk, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonen erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa, 5.3 puntuan adierazitako baldintzetan.

6. HAUTAKETA PROZEDURA

Behin jasota, hautapen Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde horretako kideak izango dira: Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendaria, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzu burua eta teknikari bat.

Soilik ebaluatuko dira eskabide osoak eta destinoan onartutako lan-programa bat aurkezten dutenak, eta, betiere, egokiak badira eta deialdian adierazitako xedea eta helburuak betetzen badituzte.

Programan parte hartzeko eta onartua izateko eskaerak sarrera-erregistroko hurrenkeraren arabera ebaluatuko dira.

Uneren batean jasotako eskabide guztietarako funtsik eskuragarri ez badago, **balorazio-irizpide** hauek erabiliko dira esleipendunak hautatzeko:

- Lehenik eta behin: Lehenago nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartu ez izana.
- Bigarrenik:
 - Espediente akademikoaren batezbesteko nota: % 70 (masterren kasuan, graduko nota kontuan hartuko da).
 - Kasuan kasuko herrialdeko hizkuntzaren ezagutza maila edo/eta ingelesarena: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 maila edo titulu baliokideak: % 30eraino (C1: % 25, B2: % 20, B1: % 15).

Transferentzia eta Nazioartekotzeko errektoreordeak, batzordeak egindako lehenespena ikusita, onartutako, baztertutako eta erreserba-zerrendan geratzen diren mugikortasunak Nazioarteko Harremanen web-orrian argitaratzeko aginduko du.

7.– ESLEIPEN-EBAZPENA

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak bekak emateko eta ukatzeko ematen duen ebazpenak ondorioak izango ditu helbide honetan argitaratzen denetik aurrera:
<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-praktikak>

Ez da mugigarritasunik hasiko esleipen ebazpena argitaratu aurretik, eta bertan agertzen ez diren mugikortasunak ez dira finantzatu.

Errekurtsoak jartzeko epeak zenbatzeko, deialdiaren webgunean egindako argitalpena hartuko da kontuan.

8.– ESLEIPENDUNEK PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK

7. puntuari aipatutako esleipen-ebazpenean agertzen diren hautatutako pertsona guztiek honako betebeharrak izango dituzte egonaldiaren aurretik, bitartean eta ondoren:

8.1 Egonaldiaren aurretik

Behin hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuta, eta mugikortasuna hasi aurretik, mugikortasuna kudeatzeko nahitaezko dokumentu batzuk daude. Dokumentu horietakoren bat ez badago, mugikortasuna ez da finantzatu eta bertan behera geratuko da. **Gutxienez mugikortasuna hasi baino 15 egun lehenago bidali beharko dira:**

1. **Beka onartzeko dokumentua.** Esleipendunek bekaren onarpenari buruzko dokumentu bat sinatu beharko dute. Beka onartzea (ikus ereduak I. eranskinean) ezinbesteko baldintza da mugikortasuna gauzatzeko. Ebazpen honetan adierazitako baldintzetan beka onartzen ez bada, erreserba-zerrendan lehenengo agertzen den pertsonari esleituko zaio beka.
2. **Learning Agreementa**, behin betiko lan programarekin. Honako pertsona hauek sinatu: 1) parte-hartzailearen ikastegiko Nazioarteko Harremanen koordinatzailea, 2) xede-erakundea eta 3) parte-hartzailea.
 - o Dokumentu horrek erakusten du harrera erakundeak egonaldia onartu duela. Aurreikusitako praktikaren jarduerak jasoko ditu.
 - o Dokumentua modu egokian bete eta sinatu beharko da, beharrezko eremu guztietako informazioa eta helmuga egonaldiako aurreikusitako data barne.
 - o Ezinbestekoa da "*Traineeship in digital skills*" eta "*Level of language competence*" atalak osatzea.
3. **Hirugarrenen fitxa beteta (ikus eranskinak)**, banku-kontuaren titulartasuna ziurtatzen duen **PDF batekin batera** (titularren izen-abizenak, kontu korrontearen zenbakia eta banku-erakundearen izen ofiziala).
4. Aukeratutako hegazkin-txartelaren edo **garraiobidearen txartelaren** kopia.
5. **Europako Osasun Txartela**
6. **Bidaia aseguruak kontratatu izanaren frogagiria**, estalduren eta ordainketaren deskribapena jasoko duena.
 - a. Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaiako laguntza aseguruak izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatiko edo istripuagatiko, erantzukizun zibilagatiko, aberriratzeagatiko eta osasun-lekualdatzeagatiko laguntza mediko eta farmazeutikoaren estaldurak.
 - b. Bidaia aseguruak kontratatzea Erasmus+ programak laguntza ekonomikoak jasotzeko ezarritako betebeharra da. EHUk **IBILI** aseguruak eskaintzen ditu. Asegururik gabe egindako mugikortasunak ez dira finantzatu.
7. **OLS (Online Linguistic Support):**

Esleipendunek hizkuntza maila neurtzeko lehen proba Erasmus+ mugikortasuna hasi aurretik egin beharko dute Linguistic Support aplikazioren (OLS) bidez <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/sareko-laguntza-linguistikoa>

Goian aipatutako dokumentazioa entregatzean, Nazioarteko Harremanen Bulegoak parte-hartzaileari bidaliko dio:

- **DIRULAGUNTZA HITZARMENA** sinatzeko: jaso beharreko laguntza ekonomikoa, bidaiadatak eta jardueraren datak zehazten dituen dokumentua da, eta, beraz, berebiziko garrantzia du.
 - Erdibeteta bidaliko da helbide elektronikoa honetatik od.international@ehu.eus, bekaren esleipendunak bete eta sina dezan.
 - Sinatuta bidali beharko da od.international@ehu.eus helbidera, mugikortasuna hasi baino lehen. Sinadura digitala behar da.
 - Jaso ondoren, EHUko Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak sinatuko du.
 - Beka ez da behin betiko esleituko, harik eta hautatutako pertsonak dirulaguntzaren hitzarmena sinatuz laguntza onartzen duten arte.

Ezinbestekoa da bai **Learning Agreement** bai **dirulaguntzen hitzarmena** alde guztiek **sinatuta** egotea mugikortasuna egin **AURRETIK**, edo mugikortasuna EZ da finantzatuko.

8.2 Behin Mugikortasuna hasita

- **Egonaldiaren hasierako ziurtagiria sinatua** (ikus eranskinak). Mugikortasuna hasi eta hilabeteko epean. Egonaldia hasi izanaren egiaztakia (Certificate of arrival) aurkeztu beharko da, harrera-erakundeak edo -enpresak behar bezala sinatuta eta zigilatuta.

8.3 Egonaldia egin ondoren

Likidazioa egiteko, honako hauek aurkeztu beharko dira od.international@ehu.eus helbidean, egonaldia egin eta hilabeteko epean:

- **Egonaldiaren ziurtagiria sinatuta.** Benetako egonaldia eta egonaldiaren iraupena egiaztatu beharko da, harrera-erakundeak edo -enpresak behar bezala sinatu eta zigilatutako egonaldiaren amaierako ziurtagiriaren bidez. Benetako jarduera-egunak jasoko dira, kontuan hartuta ziurtagiriaren datak egonaldiaren finantzaketa-dataren berdina edo geroagokoa izan behar duela. Ziurtagiria jatorrizkoa izango da, zirriborrorik eta zuzenketarik gabea.
- **Mugikortasuna egin izanaren frogagiriak** (hegazkineratzeko txartelak, alokairu-kontratuak, etab.), posta elektronikoz eskaneatuta
- **EU GALDETEGIAREN PDF kopia** (EU Survey), online beteko dena galdetegia betetzeko gonbidapena jaso eta hurrengo 30 egun naturaletan. Galdetegia betetzen ez bada, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak.

Mugikortasunaren iraupen-aldiak behar bezala egiaztatzen ez badira, jasotako zenbateko osoa itzultzeko eskatuko da.

9.- ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK.

Beka jaso duten pertsonen betebehar hauek izango dituzte:

- a) Esleipendunak ikasle-egoeran egon beharko du praktikaldiak irauten duen bitartean, eta Gizarte Segurantzatik eskuratu beharko ditu Europako Osasun Txartela eta istripu- eta aberriratzeko-aseguru mediko gehigarri bat, egonaldian gerta daitezkeen kontingentziak estaliko dituen.
- b) Ezarritako epean, esleitu zaizkien prestakuntzako zereginetan erantzukizunez aritzea, mugikortasun-bekaren izaeraren arabera.
- c) Erasmus+ Praktikak programaren antolatzaileek eskatzen dieten informazioa ematea; bereziki, beka ebaluatzeko ekimenei arreta berezia eskainiz (beka indarrean egon bitartean eta ondoren). Zehazki, egonaldiari buruzko txosten idatzi bat egitea eta Erasmus+ agentziak emandako ebaluazio-inprimakia (Mobility Tool inkesta) betetzea.
- d) Beka ematean aintzat hartu den edo bekaren garapen normalari eragiten dion ezaugarri objektibo nahiz subjektibo batean izandako edozein aldaketaren berri ematea Erasmus + Praktikak programaren antolatzaileei. Ikaskuntza Akordioan (Learning Agreement) aldatu beharko da.
- e) Helburu bererako edozein administrazioen edo erakunde publiko nahiz pribaturen dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortuz gero, Erasmus+ Praktikak programaren antolatzaileei jakinaraztea.
- f) Erasmus+ Praktikak programaren antolatzaileek emandako jarraibideak betetzea, bereziki bekaldian sor daitezkeen jabetza intelektual eta industrialari nahiz konfidentzialtasun-betebeharrari loturikoak
- g) Helburuko enpresan errespetatu beharreko konfidentzialtasun-betebeharrari lotuta aurkezten dizkieten agiriak sinatzea eta, kasu guztietan, praktikak egin bitartean eskuratzen duten informazioa isilpean gordetzea.
- h) Bekaldian egiten dituzten txostenak Erasmus+ Praktikak programaren antolatzaileek argitaratzeko duten eskubidea onartzea.
- i) Beren tutoretzaz eta prestakuntzaz arduratzen diren pertsonen jarraibideak betetzea.
- j) Bidegabe jaso diren diru-kopuruak itzultzea, dagokionean.
- k) Errespetuz tratatzea tutoreak, ikaskideak eta Erasmus+ Praktikak programan parte hartzen duten gainerako pertsona guztiak.

10. – PERTSONA ESLEIPENDUNA IZATEARI UZTEA ETA IZAERA GALTZEA

10.1 Pertsona esleipenduna izateari uztea

Bekaldia amaitzen denean ez ezik, egoera hauetakoren bat sortzen denean ere utziko zaio bekaren esleipenduna izateari

- a) Esanbidezko edo isilbidezko uko-egitea. Ikaslek deialdietako epeak eta plazen esleipena egoki betetzen dituela bultzatzeko, zigorra ezarriko zaio beka lortu ondoren behar bezala justifikatu gabe uko egin dion ikasleari, baldin eta uko-egitea beranduegi egiten badu eta, ondorioz, plaza erabiltzeko beste hautagai baten aukerak zapuzten baditu. Programa honen hurrengo deialdian ez parte hartu ahal izatea izango da zigorra
- b) Esleipena errebokatzea, betebeharrak ez betetzeagatik edo beka emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.
- c) Gerora sortutako bateraezintasuna.

Bekaren esleipenduna izateari uzten zaionean, itzuli egin beharko dira harengatik kobratu diren eskubide ekonomikoak, beka mugaegunera iritsi den kasuetan izan ezik. Itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, bekan betetzeko gelditu den aldia hartuko da kontuan

Dirulaguntza ematea eragin zuten baldintzak betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako kopuruak eta legez dagozkion interesak itzuli beharko zaizkio EHUri.

10.2 Uko-egiteak

Beka onartu ondoren, ikasleak uko egin nahi badio, idatziz jakinarazi beharko dio Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzari, horren arrazoiak azalduz eta agiri bidez justifikatuz. Ikasleak uko-egitearen berririk ematen ez badu, hurrengo Erasmus+ mugikortasun-deialdietatik kanpo geratzea eragin dezake.

Uko-egitearen dokumentazioa od.international@ehu.eus helbidera bidali beharko du ikasleak, baita matrikulatuta dagoen ikastegiko praktiken arduradunaren helbide elektronikora ere.

11.- DIRU LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Oro har, laguntzak banku-transferentzia bidez ordainduko dira, ikasleak emandako kontu korrontera. Kontu hori parte-hartzaileak eman beharko du, eta erabilgarri egon beharko du beka jasotzen duen aldi osoan. **Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbesteko baldintza da kontu bat izatea Espainiako banketxe batean. Ez da egingo diru sarrerarik beste herrialde batzuetako kontuetan.**

SEPIEtik datorren laguntzaren ordainketa (zenbatekoa helmugako herrialdearen arabera) izango da) honela banatuko da:

- 1) % 70 mugikortasunaren hasieran. Ebazpen honen 8.1 eta 8.2 puntuetan adierazitako dokumentazioa bidaltzeak baldintzatzen du ordainketa hori.
- 2) % 30 mugikortasuna amaitzean. Ordainketa hori egiteko, ebazpen honen 8.3 puntuan adierazitako dokumentazioa bidali beharko da, eta zenbatekoa egonaldiaren benetako iraupenaren arabera izango da.

Egonaldiaren hasiera- eta amaiera-ziurtagirik jasotako hilabeteak baino epe laburragoa egiaztatzen badute, ziurtatu gabeko hilabeteak itzultzeko eskatuko da.

12.- MUGIKORTASUNAREN AINTZATESPENA

EHUk kanpoko enpresan edo erakundean egin den praktikaldiari erabateko aintzatespena eman ahal izango dio. Bi kasutan soilik ukatu ahal izango da aintzatespena: ikaslea harrerako enpresak edo unibertsitateak ezarri duen mailara iristen ez denean edo aintzarespenerako adostu diren baldintzak betetzen ez direnean.

Aintzatespena Tituluaren Gehigarri Europarrean jasoko da —2015-02-07ko BOEa— eta ECTS kreditutan edo baliokidean egingo da beti.

- a) **Ziurtagiri profesionala:** Harrera enpresek ziurtagiria egingo dute eta bertan zehaztuko dira ikasleak egindako lana, praktiken iraupena eta aprobetxamendu maila.
- b) **Euskal Herriko Unibertsitatearen ziurtagiria.** Ziurtagiri horretan programan parte hartu izana zehaztu eta egiaztatuko da.
- c) **Learning Agreement for Traineeships:** prestakuntza ibilbide europarra zehaztuko da, ibilbide horretan jasotako lan esperientzia edo trebakuntzari buruzko datu guztiak adierazita. Zehazki, proiektuaren esparruan emandako denboraldia egiaztatzen duen dokumentu espezifikoa emango da.

13.– ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK

13.1 Araubide juridikoa

Honako hauek arautuko dute mugikortasun programa: 1) Erabakiaren oinarriek; (2) 1997ko azaroaren IIko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, bereziki VI. Idazpurua, "Euskal Autonomía Erkidegoko Administrazio Publikoaren Laguntzen eta Diru-laguntzen Erregimena" izeneko; (3) Diru-laguntzen Lege Orokorrak (indarrean dagoena); (4) Erasmus+ Mugikortasun programa (Erasmus+ programme guide), eta (5) aplikatu daitezkeen gainerako araudiak.

Erabaki hau argitaratu eta handik sei hilabetera dagokien tauletan esleipen erabakirik argitaratu ez bada, interesdunek eskaera atzera bota dela uler dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 24 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

13.2 Errekurtsoak

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Hala ere, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal da Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen aurrean, hilabeteko epean, erabakia Unibertsitateko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123. artikulua eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia Unibertsitateko webgune ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1.a eta 46.1 artikulua)

Leioan, 2026ko maiatzaren 15ean.

Miren Gotzone Barandika Argoitia

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea

ERANKSINAK

Webgunean honako eranskin hauek argitaratuko dira:

- Eskabide-orria
- 2025 proiektuaren Learning Agreement eredu,
- Zentroko nazioarteko mugikortasunaren arduradunaren baimena
- Beka onartzeko/uko egiteko dokumentua
- Hirugarrenen fitxa
- Egonaldiaren hasieraren ziurtagiria
- Egonaldiaren amaierako ziurtagiria

Eskatzaileak egiaztatu behar du prozesuko zein punturi dagokion dokumentu bakoitza, eta bakoitzean eskatzen den gainerako dokumentazioa.